

EPILOGO ANTZERA

Joxe Azurmendi

Bitxia da, aitortu behar, kontentu bukatu dut nik nobelaren irakurtzea, ustez interpretaziorako zailtasun apartekorik aurkitu gabe, nire irakurlagunak arras beste konklusio batzuk atera dituela, konturatzen naizenean. Eskuizkribu bera irakurri dugu, halere.

Harentzat ezin garbiago geratu baita garbi: apaizak bere burua urkatu du, hori da nobelaren bukaera. “Ez, ez”, esaten diot nik: urkatu hemen ez da inor egin; pentsatu egiten du apaizak, bere burua urkatzea. Edo ezta hori ere: esan egiten du, hori pentsatzen duela. Baina hain zuzen gizon horren esateak pentsatzearekin eta pentsatzeak errealitatearekin zein gutxi zerikusten dutenagatixe dago nobelako zurriburri guztia, plaust sasidramatiko horren paradara ekartzen duena azken efektuan. Hemen ez zegoen nobelarik bestela. “Gizon hori ezin pentsa genezake errealistago azken orrian, nobela guztian baino”.

Ez dut uste konbentzitu dudanik; berak ez nau ni gehiago konbentzitu. Ados gaude, halere, ez dela oso in-

portantea. Ala bai?... Joan da, eta bukaeraren arazo horrek buruan lanean jarraitzen dit.

Nobela hau niri iruditu zait bat-batean gastatu egin dela eskuen artean; ez bukatu. Ez dago bukaerarik (“kon-
denatua?... salbatua?”, Mefisto kaskarrok ezin jakin); hobe, testuaren bukaera bat badago, baina ez historiarena.

Idazlearen lekuan geu jarrita: zein bukaera asmatu is-
torioari, ibilbide sinbolikoari, problema izaten da. (Ez so-
luzio literarioaren arazoa, baizik ideiaarena). X. Mendigu-
renek bukaera gabe utzi du berea. *Bi Anai*-k, adibidez, ba-
du bukaera bat, polit askoa: suizidioaren ondoren orain-
dik “salbazio” bat dago.

Kontua da, Novalisek planteatu zuen bezala, “berriro
etorri beharra al dauka beti goizak?”. Lanak ematen ditu
oraintxe etorkizun itxaropenik edukitzeak.

Alegia, natura ez da hiltzen, transformatu egiten da
(*Bi Anai*-ko Euskal Herria “natura” da). Kultura bai —his-
toria— hil daiteke, eta hiltzen da.

(Nora doa euskal historia azkeneko bi mende hone-
tan?... Zeinek daki?)

[1]

Bukaera bat, ordea, mezu bat eta klabe bat da. Atxa-
garen bukaeran, trenaren aurrean jarri eta, beren buruak
hiltzen dituzte bi anaiek. Gero:

“(...) Trenbidera begiratu nuenean bi antzarra ikusi ni-
tuen trena pasatako lekuan; bat oso handia, bestea arrunta.
Niregana zuzentzen zituzten lepoak, gida eske.

—Zatozte nire atzetik —esan nien— Nik ezagutzen di-
tut zeruko bideak.

Beti hegaletan, hegoalderantz partitu ginen”.

Obaban udazkena da, hortaz. Arratsaldea da, gainera.

(Bestenaz, irudi honetan hegoaldeak babeslekua sinbolizatzen du negu hotzetik eta heriotzatik).

Txori kronista, “heriotzaren zain etsita dagoela” heldu da Obabara; norbaiten heriotza adierazten duten uhuri tristeak eta hil kanpaiak daude aidean, etab. Irakurleak ongi gogoratzen du narrazioaren hasierako atmosfera hori eta ez dago zertan errepikatu. “Zenbat eta aurrerago joan arratsaldea, orduan eta ugariagoak ziren heriotzaren seinaleak Obaban”. Jende xume onaren herria da Obaba (ze-rrategian lanegiten du, neska-mutilen jolas handia da bizikleta, jaiak enparantzan ospatzen dira herri osoa bilduta) eta buruan kanta ttiki bat dauka, ez Pitagoraren teorema-rik, “eta hala ematen zuen, doinua eternidade batean errepetituko zela (betiereko itzuleran etxetiartzen du denbora kultura nekazariak) eta oso ondo, pentsatu genuen, oso ondo doinua behin ere bukatzen ez bada, zergatik oso doinu polita baita”. Damurik, mundu honetan dena irau- gitzen da eta denboraren burdinazko legeak darama Oba- ba. Hasieran sagar ale ttikiak, pipitak baino ez direnak; sagar hori helduak gero, bigunagoak izanik harrien kontra mailatzen direnak...

Begira, ez aspaldiko belaunaldi batek derrigor urba- noa izan nahi zuen, Orixeren “baserritarkeriarekin” zakar- ki polemizatu zuen (“... herri bat izan zan!”) eta —bere komplexutxuen poderioan— EH tradizionala zapuztu egin du literario nahiz politikoki. Hurrengo belaunaldi litera- rioan, EH tradizionala askoz ere galduagoa dagoenean, hura maitagarri eta “lur minbera” sentitzeraino sentimen- du eta maitasun aurkitzen da berriro Obabako partearen- tzat, guztiz beste sentsibilitate bat, sagarrak nola errekan harrien kontra mailatzen diren ohartzen dakiena bizitza-

ren eta historiaren indarkeria. Bernardo Atxagarekin apalagoak izaten eta, gauza apalak baino ez daukagu guk, gauzatxo apalok maitatzen ikasi genuen. Tradizioak, beti mendikoa izan den jendea... Badakigu, soziologikoki EH hori badoa hiltzera erremedio gabe; baina gutxienez gure imaginario poetikoan, maite-maiteki transfiguratu egingen dugu eta paseko hegaztietan edukiko dugu irudikatuta zerruan betiko, udaberriero berri gure gainetik hegan iparraldeko bizileku mitikoetarantz, hotzak hasten direnean hegoalde urruneko beroaren bila erritmikoki pasatzen udazkenoro.

Antzarak berak, nik uste dut, xotilarenganako Atxagaren maitasunaren zeinu bat dira, EH apalari zegokion gisan. (EH sinbolizatzeke, seguru, antzara hobeto dago; zisneak eta Wagnerri utzirik edo Txaikovskiri). Izan ere, kurriloak, zisneak, hegazti gortesauagoak, errepresentazio berdineko sinboloak baitira, zeruaren eta lurraren arteko mandatariak, berpiztearen errepresentazioak (kopa atiko batean Afrodite antzara gainean zaldun ikusten da Museo Britanikoan; Ledaren mitoarentzat anitz eratako aldakiak daude), eta, Txinatik Zesarrek deskribatu dituen keltenganaino, K.a. 390. urtean kakaraka Erroma salbatu omen zuten antzara kapitolinoak ahaztu gabe, presentzia maizekoak tradizio herrikoi eta literatura guztietan.

Beharbada “Kehren die Kraniche wieder zu dir...”, daktilo sinesgaizki musikalen erritmo leunean uhinkaritzen den poema, Hölderlinen ezagunenetakoa da eta osoenetakoa (*Der Archipelagus*): “kurriloak itzultzen al dituk hiregana berriro...?” Klasizismo eta idealismo alemanean, maiz aurkitzen da kurriloa Greziaren berpizte —Orainaroren salbagarri— amesturen sinbolo bezala (Schillerrek “Ibykosen kurriloak” poematxoa dauka, Alemanian arrunt

popularra, historia poliziako txiki bat), Hölderlinen poesian guztiz gain. “Atika, heroisa, jausi da;/ jainkoseme antzinakoak datzaten tokian./ sala marmorezko ederren hondarretan/ orain kurriloa dago bakarti doluan” (*Griechenland*; ik. *Die Wanderung* ere, bere sorterri Suabiari hain zuzen!). Greziaren berpiztea ez da edozein iraganen itzulerara (Arana Goirik ez zituen esan, esanarazten zaizkion tontakeria denak), zeru eta lur berrien igurikapena da, gizarte berri batena Modernitatearen aurka. Iraultza totalaren itzaropena, Moderniatik salba gaitzan. “El retorno de Grecia —gure gazte-gazte denboran, esango dut, Luis Díez del Corralek ongi ikusten zuen moduan— es un acontecimiento religioso, escatológico, que transformará todas las cosas de manera semejante al advenimiento del Reino de Dios para el Cristianismo”. Oraingo “kristautasunaren” (berdin Moderniaren!) lekuan hain zuzen. Paseko kurrilok hori errepresentatzen zuen: berriro Grezia, berriro natura bere armonian eta erritmo eraberdinean!

Idealismo alemaneko poesian bezala, Pott Bandako eta harekin sintoniako literaturan kausitzen da orain behin baino gehiagotan berriro paseko hegaztion sinbolismoa euskaraz: “antzarrek V bat egin zuten zeruan” (*Etiopia*). “Egun aietako batean udaberriaren etorreraz oartu niñuan ..., asteac cichamazquian enarac egaca” (*Camilo Lizardi*); “joan dira enarak, hasi da negua” (*Post tenebras*), etc. Denok ezagutzen dugu Lizardirena: “Amonatxo bat nun: gaur enarak/ etorri-garaiez, aldegina”. Lauaxetarena dugu beste hau: “Enara batek bezela gastetasunak narua/ eta eguak zabalik gorantza juat gogua” (*Gaste gexua*). Eta gomuta orobat Sarrionandiarena: “Antzara bat da imajina” (*Ni ez naiz hemengoa*). Edo:

“Udazkena iragan orduko
usapalak, basusoak, kurriloak,
basoilandak eta usoak ageri ohi dira
ortze hozpelean ifarretik
hegorantz doazela...”
(*Izuen gordelekuetan barrena*).

Sarrionandiaren hainbat poematako motiboak dira gero horiek (“kanposantuko antzarak”, etab.). “Basahate saldo bat doa alturan hegatsez/ sokarik luzeenaren lerroa marraztuaz” (*Gartzelako goiza*). “Hurrinegi, basahateak lakuetara/ hegalak zabalik murgiltzen. Bihotz iluna:/ Noiz eginen duzu haien antzera jauzi?! Esperantza altzairuzko orratza da/ hamaikagarren atean...” (*Bihotz iluna*). Zeruko Ulise horien untzian gure amets-hegada eta urruti-mina doa. Aberri ezezagunen jorana, herri koloretsuen kanta bero exotikoekin gauean. Imajinazioan kabitzen diren Dohatsuen Irla guztiak nabigatzen dira haiekin batera gure gainean. Errealitateari ihes egiteko amesbidea, ikusten dugu zeruko hegaztien migrazio horietan, hegoaldearen eta iparraldearen esanahi simbolikoei atxikita. Horregatik, Sarrionandiaren gartzelako poema batean “Esaidazue, hegabera, zergatik duzue/ pasatuala katearen antza?”, topatzen dugunean, bihotzondoko jelatu batek kolpatzen digu gorputz osoa (*Neguko paisaia*).

(Askatasunak kateak ditu, beraz!). (Euskadiko gauzak).

Isilpetik, alabaina, “Hegaztinak badoazi hegaldaka zeruan” beti ere, osteratu dio delikatuki, Rubén Daríoren musikalitatezko oihartzun batean, Berrizbeitiaren pentadekasilabo ianbiko aratz osoki pulkro gurilanduak, nahi askotan bai neka-nekatuta eta halere ezin baitugu esperantza hau zakarrontzira bota.

“Hegaztinak zeruetan eta gu lur gainean
Bide luze bihur baten helantzen zirimolan
Fidantziaren akuluz, xangrinaren zaldian
Bideak buru dukela noiz sinistuz, noiz dudan.

Giblean utzitako hutseginen zorneak
Egungo zauriak mintzen dituzten oroimenak
Biharraren lurraldera lehiaz ari dira so
Ageri denez etxerik non aurkitu abaro.

Bideko nekeak ez du beldurtzen bidaria
Xedea urrunago ta minago haren nahia”.

(Hegaztinak badoazi)

(Ez ote da Berrizbeitiaren poesia sonata bat biolin perfektoenarentzat bezala entzuten ariman? Verlaine eta Mirande batera, dena musika, hitza bezainbat irudia. Mester Klereziako intonazio guztiz berri bat euskaraz).

Kurriloa, antzara, enara, itsas-ahatea, etab., beren emigrazioekin udaberrian eta udazkenean, naturaren joan-etorri ziklikoaren eta betiereko itzuleraren sinboloak dira, heriotzarenak eta bizi berriarenak, pizkundearnak (horregatik askotan sinbolismo erotiko bat ere badagokie). Teseok, halaber nekazal bizitza ziklikoaren eta hil beharrraren imajina den labirintotik irtetzen asmatu duenean (“labyrinthoan sartzen zena ez zen irtetzen/ ez zen irtetzen ... minotauroaren atzaparretarik”: Sarrionandia berriro), “kurriloaren dantza” dantzatu du, birjaiotza edo primaderako biziberriztea erakusteko. “Naturac bere legueac zeuzcac, gu ere barruan artzen gaituela; bere ardatzac jiraten duenean gizonac ere jira eguin bearra ceucagu” (Atxaga berriro).

Ta zuek, nora, txoriok, saldoka
zoazte, iraduz urrundu-bearka?
Adiskide Urretxindor il zaizute,
ta aren ilkizunetara
—egoak ikara—
berandu-beldurak al zaramate?
(Lizardi, *Ondar gorri*).

* * *

Ni ez noa orain X. Mendigurenen nobelarekin konparazioa eginez bukaera tipoen ikerketa bat egitera guzti honenkin. Ez da nire ofizioa. Bakarrik bi bukaeraren arteko kontrastea, ikuspegi biren kontrastea dela jarri nahi nuen bistan. Bi ideia erakusten du.

Bekatuaren itzala hau “ez dela bukatzen”, esan dugu; edo, nobelan letra bukatzen da, testua ez, esan beharko litzateke agian hobeto. “Ez bukatzea ez da gai bat”, eragotz diezaguke lagunak berriro, igarri ezinda zer ari naizen ostera puntu horri bueltaka.

(Dena den, zer pentsatu sortzen duena dauka nobela honexek bere “ez bukaera”!).

Bada gai bat agian, hala dut susmoa. Gide-ren *L'imoraliste* ere “ez bukatuz” bukatzen da. Eta gogoratzen dugu aitzin-solasa: ez dut salaketarik, ez apologiarik egin nahi izan, ez “esanahirik irakatsi”, agertzen zuen han Gidek. Problema ikustarazi bakarrik. “Je n'ai cherché de rien prouver, mais de bien peindre”. Gogoetalarari bat ez da derrigor irakasle bat. Soluzioa beti badakiten idazleek higuindu egiten dute. Baina soluziorik ez daukatenek, gutxienez problema baldin badaukate, eta esaten badakite, nahikoa egiten dute problemak ezkutatu gurago duen gizarte batean (“bien poser un problème n'est pas le supposer d'avance résolu”).

X. Mendigurenek planteatu egiten du arazoa, eta planteamenduaren parte bezala, tanpezko suizidio/asasinato keinu batekin —ez obra, kasu!— erabaki du atea ixtea. (Beti nahastu ditu pentsamendua eta errealtatea protagonista honek). Keinu batekin.

Euskal historia modernoa, hasi XIX. mende hasieran eta, zerbait ikaragarri egiteko keinada etengabetan baitoa: biolentzia, euskaldungoaren behin eta betiko xahupena, independentzia... Zeinek asmatu, zer aterako den?

“Kontzientzia baten frakasua...” (Frakasuaren kontzientzia).

(Zer soluzio ari dira politikoak ematen problema honi oraintxe? zer esperantza eduki liteke, bide honetatik sekula soluzioren bat emango zaionik?).

Baina hori postmodernia edo modernia galdu zoro honetaz ere esan liteke jada, ezta? (Europako krisi handiagoaren barruan eman da euskal krisia), hainbeste gerra eta desastre eta gero, XX. mende osoan: dena hil da, ala dena hil egingo dugu? (Nietzsche? Heidegger?... Foucault?). “Ilusiogabeziaren kultiboa”? Betiko amaitu ote da Modernia?

(Euskal Herria/Apaiza, Modernia/Apaiza).

Ohizko drama moderno itxia balitz hau, psikologikoa esaterako, protagonistak, berak egindako zuloan amildu eta hobiratuta bukatuko luke; alegia, bera izango litzateke, makina itsu baten antzera, bere patu tragikoaren egilea. Gure protagonista ere, bera da patuaren egilea. Baina gero patu horrek ez du bukaerarik. Edo hobeto, bukaera badu, baina ez bukaera-ekintza bat, hurrena irekitzen edo ixten duena, ate bat sentidorantz, positiboa nahiz negatiboa. *Bi Anai* bukaera irekikoa da (hasiera berri batera). *Bekatuaren itzala* ez da bukaera irekikoa, baina itxigabe-

koa esango nuke. Ez da geratzen esperantzarik, baina ez da ukatzen. Nobela bukatu denean, “beste” denboraren bat edo, “beste” historiaren bat edo, besterik, ez da ezer geratzen.

Gorputza hilda, erakunde politiko (Foru) batzuk esaterako, izpiritua gera liteke. Izpiritua hiltzen denean, ezer ez da geratzen.

Izpiritua omen da: egonezina, kezka, gauza fin transparenteen sentsibilitatea. Nola maitatu euskara bestela, esate baterako? (Chagallek pintatzen duen “auzo errusiarra” maitatzea bezala). Izpiritua gizakumearen arimako nobletasuna da. Kultura da. Eta hori hilez gero? Edo besterenduz gero? (Fantasma bakarrik geratzen da, gauean aparizioak egiten).

[2]

Izpiritua gaixotasuna dela baieztekoa tendentziosoa omen litzateke, esaten du Thomas Mannek. (Uste dut adierazi nahi duela, gehiegitxokeria hori Rousseauk, Nietzschek egiten zutela). Baina ahaideak bai, ba omen dira. Hain zuzen Th. Mannek liburu bat dauka, *Maisuen sufrikario eta handirasunak*, 1935, izpituaren eta gaixotasunaren kidetasuna ximenki ikertuz literaturan: Goethe, Tolstoi, Schopenhauer, etab. Oinazezko lurretan loratzen ei da artea ederrena. Th. Mannek bere esperientzia propioan ere idazle gisa ikusia dizu egia hori. *Lotte in Weimar*-eko kapitulu biribilenak esanezinezko samin artean idatzi bide zituen; *Doktor Faustus* halaber makalaldi fisiko zein psikiko ilun batean paratu zuen, berak dioenez (ik. *Die Entstehung des Doktor Faustus*, 1949). Erialdiak no-

bletasuna azalerazten omen du, jendetasuna, gurbiltasuna, alde humano aristokratikoa. Ez aristokratiko haizejo, harro, aberezkoa. Egotikoa. Fina baizik, argitsua, gizatasuna sakontzen, goititzen, indartzen eta zuhurtzen duena.

“Nire garaiko” batzuk ere berdintsu aipatu ahal nitza-ke hemen apika, aspalditxoan ez izan arren santu debo-zioko partikularrak. (Guri “emigrazio” gehiegi ibili beha-rra tokatu zaigu kanpoan nahiz barruan, gure aldian, eta aukera gutxi eman zaigu hasieretako autoreak hogeita ha-mar urte geroago oraindik gureak kontsideratzen jarraitu ahal izateko). Ortegak halatsu deritzo gizon-emakumeari “un ser, el cual, considerado desde el punto de vista de la naturaleza, ha enfermado, pero que no ha muerto, sino que intenta, enfermo, seguir viviendo” (*El mito del hombre allende la técnica*, 1951). Garai batean franko topikoa izan da gizakiaren gaixotasunarena eboluzio biologikoa-ren giza naturarenganako ikuspegian.

“¿Queréis una versión de nuestro origen?”, ziharduen antzera samar Unamunok ere *El sentimiento trágico de la vida*-n. “Un mono antropoide tuvo una vez un hijo enfermo, desde el punto de vista estrictamente animal o zoológico, enfermo, verdaderamente enfermo, y esa enfermedad resultó, además de una flaqueza, una ventaja para la lucha por la persistencia (...). El gorila, el chimpancé, el orangután y sus congéneres deben de considerar como un pobre animal enfermo al hombre, que hasta almacena sus muertos”. Orain Unamuno bera txinpantze liberal, progre bat bihurtu nahi digute. (Arrueren antzekoa?). Baina “acaso la enfermedad misma sea la condición esencial de lo que llamamos progreso, zioen Don Miguelek, y el progreso mismo una enfermedad”. Eta Thomas Mannek: “gaixotasunaren jeinua osasunarena baino gizatiarragoa

da”. Gaixotasuna izpirituaren propioa da; animalia izaten da osasunez gainezka betea.

Honek H. Heineren harako osterakoa gogoratzen dit, lehen irakurketan zur eta lur utzi ninduen (Italien, XI), berak apartak dauzkan lotsagabekeria horietakoa: “Tirolesak, zioen, jende ederra dira, alai, leiala, zintzoa (gu ere, euskaldun menditarrok, garen bezala apika? Hori esan ohi baitugu)... eta —darrai Heinek— ondogabeki motza! Arraza sanoa dira, beharbada kokoloegiak direlako gaixo egon ahal izateko”.

(Pentsatuko nukeen, Mendigurenen nobelako emakumeotan gutxienez batek herrena edo miopea izan behar zuela, izpiritualagoa eta limurkorragoa iruditzeke. Baina hemen, bistan da, nobelista gaztea ez da saiolari zaharra bezain arrafinki perbertsoa barne-barnean).

Eritasuna —eta pudorea, etc., sexuan— izpirituaren eta argitasunaren seinaleak dira. “Humanitate goitarrago baten nobletasun atributua bezala manifestatzen da gaixotasuna”, ebazten du Th. Mannek Goethe eta Tolstoi erkatzen dituen saioan.

Ez da dudarik, asto eta mando sanoen historia izan dela gurea. “Euskaldun fededun”, eguzkiaren azpian gu jatorrenak, munduan ez da leku hoberik. Dena ondo: Gora Errege, Biba Eliza santu katolikoa. Gu denok nobleak gara eta Euskadi beti demokratikoa.

[3]

Izpiritua gaixotasunarekin etorri da, kontzientziak, krisiak harrapatu gaituenean. Moderniaren problemekin

euskal identitatea gaixotu egin da, hau da, kontzientea bilakatu da. (Pixka bat, ez asko). Normala zen hala izatea.

(Gertatzen dena da, izpiritu txiki horrek, oraindik Inperioan dabilelakoan ibili nahi duela askotan. Alegia, ehun urte eta gero, atzera “sano” egotera itzuli nahita tematzen dela oraindik, bere iragan kokolora, “han eroso sentitzeko”).

Halako “gaixo” kultural bat Lauaxeta genuen, “Gexorik nago” izenburuko poesian berak azaldu legez (ik. “Gaste gexua” orobat). Izpiritu fina, gizatasun goraz betea. “Erromantikoa”, esango genuke. Lur gogorra utzi eta ideia eta sentimenduetan bizi da marinel. “Ama el atardecer..., cultiva el recuerdo, deja las realidades”, diotsa bere buruari. Errealitatetik zorabiatu eta ameskortu egin du gaixoaldiak:

Zer dodan eztakit, baña gexo nago;
gorputza aul daukot, gogua ariago.
Arratsari nago..., itxas-urdinari,
lanari el-ezin, soilik ametsari.

Alegia, gaixo ez egoteko ez da aski, ez egon nahi izatea. Bestela esan, izpiritua erdeinatzeak ez gaitu egiten naturalak eta jatorrak, arloteak baizik. “Orain borroka gorago eraman da” (Nietzsche). Izpiritua gaixotasuna bada, egitea geratzen zaiguna hori gainditzeko, ez da jada izpiritugabeziara —antzinate idiliko edo zaldunen batera!— itzultzea, baizik izpiritu gutxi dagoen tokian izpiritu gehiago eduki eta finagoa. (Arazoimenaren krisian, arazoimen gehiago da soluzioa, ez arazoimen gutxiago; EH gaixo badago, ez du ematen justu izpirituaren gehiegiaz denik).

Gaixotasuna, Th. Mannengana etorrita berriro, senti-kortasun gehitu min hori ariman, kulturaren forma bat da. Kontzientziaren figura bat. Ez oso bestelako moldez, emakumea, apaiza, kontzientzia kolektiboaren figurak dira orobat, artekotasun efektiboeneko figurak mendebaleko eguneroan, guztiz bestelakoaren aspirazio metafisikoa, “gaixotasun” sublimateak, sufritu beharra dagoen bulgaritatean. Gaixotasuna krisia da, begi zoliagoak. Ezine-gona. Urduria. Dolore luzeak izpiritua erabat mehetzen, sentiberatzen, fintzen du. Esklaberiak zenbateraino izpiritualdu zuen miseria beltza, Gospels kontzertu batean entzuten duzu, negarretan eder irudiarazteraino itxaropen deskontsolatua. Th. Mannek *Mendi magikoa*-n Modernia, edo Europa, bere krisi totalen, moral, ideologiko, sozialan, politikoan, bi Mundu Gerren biolentziaren artean, totalitarismoen irakinetan, tuberkulosoentzako sanatorio baten metaforan errepresentatu du mendi urruti batean. Aspaldian asmoa banuen, baina honezkero alferrik izango da, konparazio bat egiteko noizbait *Mendi Magikoa*-ren eta *Obaba*-ren artean alde honetatik. Obaba krisian eroritako EH da, naturatik irtenda eta zibilizazioan sartu ezinda. Gaixoek baino, kuriosoki, Obaban hurrek, subnormalek, “izpiritu gabekoek” errepresentatzen dute izpiritu gehiena. Izpiritu ez korrupitua, maitagarria. Gaixotasuna propioki baino, izpiritua hor ahultasuna da edozein mol-detan, batzuetan natur fenomenoetan beretan. Hau da, irakurleak Obabako mendi magikoetako jendea kausitzen duena, pietatezko begirada beratz batek ikusitako haurtzaro handi bat da, bizitzeko egokitu ezinda orain inprentako letra artean; egon den EHrik ederrena bai, nahi baduzu, maitagarriena behintzat, gordetzerik ez dagoena bai-

na, denborak badaramalako edo errekan eramana duelako jada.

Industriarekin, politikarekin, EH aldatzen ari da, mila konflikto artean. Bernardo Atxagak erakutsi duena da, denok progresistak izan nahi dugula, geroz eta modernoagoak ibili nahi dugula, eta ongi dagoela, baina galtzera goazena, mundu zoragarri bat zela, askotan estupidoki mesprezatu den “garo usaineko Euskadi” menditar hori.

Atxagarengandik Mendigurenengana dagoena da, haurrak ere “gaiztotu” egin direla bitartean. Sinboloak berak. Hein horretan autorearen perbertsioa ez dela txiki-txikia, esango zenukete. Arrazoia. Apaiz hau EH gaixoa da, baina EH obseso nazkagarria da, bere jende guztiarekin.

Alegia, orain hemen egon dagoen EH horixe da, besterik ez. Hor ez dago zer pietatetsuki maitatu gehiegirik, bai zer dena zapartu eta berria egin — ahal bada. Dena dela, bera suntsituko da hori.

[4]

Bere porrot osoraino ilusioan bizi den apaiz hau, Euskal Herri modernoa da. Moderniarekin asmatu ez eta frakasatu duena, bere burua azkeneraino engainatuz, eta azkenean ere bai.

(Euskadiko historia modernoa Euskadiko Ezkerraren historia berbera da).

Haren “ideia” handien handitasun guztia, bere “moroï arimak” elikatzen zuena zen.

Bere konplexu babuen eta obsesioen biktima.

EH hau maitatzea honezkero inorentzat ez da erraza. Gaixotasunak izpiritua subtilizatzen eta nobletzen duela, egia bada, ez baita gutxiagoa, erialdi luze nahigabetsuak arima erre eta, Settembrinik *Mendi magikoa*-n Leopardiren kasua alegatzen du, etsiarazi egiten duela. Minaldi luzeak pazientea ahuldu eta gaiztotu egiten du. Mingostu, aierukortu inguruarekin, erretxindu, lagunekin gizatxartu, edozertarako kaldartu. Karlistak eta liberalak, Arana Goiri, Primo de Rivera, Franco, Bize-Franco, Alderdiak eta Biderdiak, dena beti erdi... Gurea gehiegi doa luzatzen. Ez da ikusten soluziorik. Zer itxaron beti puntu berean jira eta bira diharduen politika fantasma batetik? Usteldu egin da giroa. Orduan zaila da Leringo Kondearen Erresuma Zahartu eta Vichyko Eusko Jaurlaritzatootan, eguneroko historia eta populua, langabezia, atentatuak, politikoaren tartuferia demo-sakristau eta progresia dandyak, europismo haizeputzak arras ezlekuan (trena Irundik barren sartu orduko Zikin eta Zaratalandia nardagarri hutsa da parajea bezala jendajea), Alderdiaren kleroa dagiten “intelektual” hits bezain hutsen txolinkeria pittinak (titularretarako), hauteskunde zirkoak, teatroak, pigmeo erraldoi literatoen poseak, itzultzaileen kreatibitate jeinutsuak (beren usteko), artisten erremuskadak eta filosofoen furruriak, kalejende guztiaren harroa eta bulgarea, gure hantustekak eta lanaren erdipurdikeria absolutua linternerotik Unibertsitateraino, kultuen inkultura esuberantea, inkultuen auzotarkeria harroa, bazter guztietako zabarkeria, urbanizazio basapiztia, taberna eta kafe-ukuilu okagarri “tipikoak”, zaila da hori dena egunero-egunero ikusi behar eta oraindik begi errukitsu maitatiak eduki ahal izatea sa-

murtasun eta gozorik inon gabeko Obabua bilakatu horren euskopitekoarentzat. Obaba lakatz hori gaitzegia da maitatu ahal izaten; eta maite bada, “erreko dot Aramaio guztia”, agian ez da erremate logiko ulergaitzena.

Tentazio batzuetan, ez oso erraz bakarrik, apropos jausten gara. Zertarako iruzkin politikoak egin, politikoak ez den nobela bati?

Ez da politikoak. Ez dugu bihurtuko. Nobelari nobela izaten utziko diogu.

Baina, handik aurrera, “si par «problème» on entend «drame», dirai-je que celui que ce livre raconte, pour se jouer en l’âme même de mon héros, n’en est pas moins trop général pour rester circonscrit dans sa singulière aventure”, dixit Gide. Edozein testu den palimpsestoan, eta gehiago literarioa, geruza eta ispilu eta signifikazio desberdin asko dago libre gero. Hau kasu ongi zermugatua da, gizon tipo jakin batena, situazio konkretu batean, harreman urri gutxi-gutxirekin eta leku itxian. Hots, kanpo minimoarekin, psikologia barruan sartuta narrazio guztia. Beraz, jeneralizaziorik gutxienarekin edozein aldetatik. Hizkuntza bera, gure mendearekin hasi zen euskara mundurako prestatzeko martxatik irten eta oraindik bere inutiltasunean eduki zezakeen ederrera itzulitakoa; beraz, “errealitatetik landa” paratuz hortxe ere. (“Euskara txarra”rekin jeneralean euskara txarra besterik ez da adierazten; “euskara gozo ederra!” esaten denean, hemen bezala, euskararekin estiloa ulertu behar da gehienetan: estilo eder gozoa). Horrelakoxe proiektu bezala propio autoreak gauzatu duen esperimentu literarioaren interesa eta meritua —egia esan, nik ezer ez dakit literaturan—, iruzkin politiko tonto batekin borta egingen al dugu? Ordea

historia bat ere hau bada. Bere frakasua fabrikatzen duen autokontzientzia baten autoengainua eta ausiabantza da.

Hori ez al da doi-doi EHren historia?

[6]

Eta imajinatuko bagenu, momentu bat, apaiz hori euskal idazle bat zela, eta autorearen ispilua? (edo nirea, esate baterako?). Roland Barthesen “idazlea, apaiz alokatua da”, Sarrionandiak aipatu digu.

“Intelektualaren” tentazio etengabea da politika (irakurlearena: irakurketa politikoa). “Der Worte sind genug gewechselt./ Laßt mich auch endlich Taten sehn!”, eskatzen du direktoreak *Faust*-en: hitzak eta pitzak esan dira nahikoa, erakutsi noizbait ekintzak! Ezaguna da Goetheren faszinazioa Napoleonenganako (eta Hegelena, etc.). Boterearen liluramendua. Indarrarena.

(“Lengua sin manos...”). Pentsamenduaren ahalkea da. Intelektuak bizitza bilatzen du. Ekintza.

Egun batean eta bestean eta bestean, jasangorria egiten baita —momentu batzuetan— izpiritualitate isilaren zama, euskal idazlearen kasuan bereziki, bizi mila modutako istilu artean biziz beti eta jardun mila lan irrealetan lanean jardun, publiko fantasma batentzat, ezertarako balio ez duen euskara honekin, desesperatzeko ez bada.

Politikak, orduan, haragia dirudi. Konkretua. Bere buroan zalantzaz beteriko izpirituak, haragiaren kontaktuak errealitatea emango diola, imajinatzen du bere grinan...

Izpirituak ondoegi ezagutzen du bere ahultasuna eta inbidiaz maite du anti-izpiritua. Hauteskundeak, atenta-

tuak, protestak eta manifestuak, “tentazioak” egunero hainbeste daude egon ere, zirt-zart egiteko eta gero gero-koak. Behingoz bederen justizia egiteko “beste” politike-ro alu horiekin, mendekatzeko, emateko egurra eman behar den bezala eta milatxikipuska eginda uzteko, putakumeok. “Zer uste dute gero EAJko politiko astozahar-tratante horiek? Ez dago artobero horien susmotxarra, fidakaiztasuna beti jasaten segitzerik!”. EAJk bere bahituta kotzat trata dezan aspertuta dago euskal kulturako militantea: PSOEn sartu eta EAJz mendekatuko da. (UAN sartu denik ere ba omen da). Beste hizkuntzarik ulertzen ez badute, horixe ulertuko digute. Kito. Ekintzara pasa. “Ordua da PSOeko/EEko trepa espainolista harroputz horien aurka bategiteko fronte batean abertzaleok!”. Eta euskal kulturako militanteak EAJn sartzeari pentsatzen du, borroka efikaz bat egiteko PSOeko espainolistei. Konprometatu beharra dago. Eskatu ere, ez al zaio bada edozein abagunetan bere sinadura eskatzen alde guztietatik, bere deklarazio bat, bere sostengua, protesta? Behingoz osoki sartu. Egiaz ekin. “Ezin dugu beti utopian jarraitu, beti mugimenduan inora mugitu gabe: euskaldunok errealismoz eta efikaziaz jokatu beharra daukagu!”. Arrazoi pila legoke.

(Gero, intelektualaren kontzientzia, intelektualaren banitatea ere bada, eta politikoen ezagutza eta mimoa ikaragarri maite ditu intelektualtxoak...).

Intelektuala ekintzaile terriblea izango litzateke gus-tora: amerikanoak betiko zanpatuko lituzke. Ukas batekin ipiniko lituzke berriro Nikaraguan gauzak behar zuten lekuan. Ebrotik behera golfo bihurtuko luke Mediterraneo osoa sekula santako.

Badaki berak ere eldarnio hutsak direla astakeriok. Halere nahi luke bere buruari gaur traizioa egin, kupida gabe, imajinazioan bederen. Purifikatuko da gero. Baina orain basatu egin nahi luke, bere burua urkatzerainoko erradikalismo izpiritualez, zalantza eternalen lanbro kontenplatiboetatik ekintzako ebidentzian pulunpatuz. Ahultasuna handiago eta handiagoa mendekuaren poza.

Gaixotasun luzeak izpiritua bere kontrariora bultzatzen du. Anti-izpiritura. Inhumanizatu ere egiten gaitu gaixotasunak.

[7]

Esaten den moduan, gauzak ez dira noski hain sinpleak. Bestalde, ni ez naiz idazlea eta politika ezkontezinak diren ustekoa. Alderantziz (Lizardi, Lauaxeta). Seguruena hemen inork ez dit hori ulertu, nolana ere, eta ez dago zertan hori argiagotzen ibili.

Poetak politikoa izan nahi luke; politikoak artistaren lehia sentitzen du barruan. Artistak baratzaina inbidiatzen du. Izpirituak beti dauka joera bere bestelakora. Gizaberearen natura berekia da hori.

Animaliaren joera medioari adaptatzea da: aurkitzen du bizigiro bat, inguru natural bat, eta hartara jartzen da, ez du aldarazten. Ikusi, miozenotik hasita, zenbat medio diferentetara egokitu den hartza. Desadaptazioa heriotza da. Kontrara gizakiak: inguruaz jabetu, hautsi, birregin, egiten du, eta ingurua —natura, tradizioak, etc.— bere erako nola bihurtu horixe izaten da gizaki eta gizarte bakoitzaren kultura. Gizakia ezin da aurkitzen duenarekin

geratu. Inguratzen duenaren transformazioan ari da beti. Gaitasun horretan dago bere askatasunaren neurria.

(Bere tragedia ere bai).

Ingurua “irauli” nahi lukeen izpirituak, sarri, lan hori uste baino zailagoa eta luzeagoa dela, edo —ilargitar samarra izan bada batik bat— bere asmoa ezinezkoa duela, deskubritzen du. Orduan desengainatzen da (ideiaz, ez bere buruaz: ilargitarra gero ere ilargitarra izaten baita, ilargi itzalikoa). Ideia berrikusi eta birpentsatu ordez, errealitateari adaptatu ordez (pixka bat bera ere animalia dela ezagutuz bere buruari; hain gogorra al da?), halako batzuk, helburuari berari arras uko egitera eta —beti arrazoa besapean berekin— beste muturrera pasatzen dira. Orain ez dira nekatzen besteen “utopia” salatzen, “ideologismoa” kritikatzeko, eta gu, soportatu ezin dituzten “salbatzaile” guztiengandik salbatu nahi izaten gaituzte. Honelako “desenkantuaren kultibatzaileak”, EHN kolega pila daukagu.

Nik uste dut izpirituaren beste egiazko suizidio bat horixe dela. Sukaldeko labana handiaz hiltzen ditu bere ideiak, eta ideiekin bera hiltzen da autoengainu berriaren sokatik urkatuta.

(Okerragoa da, beste denok urkatu nahi bagaituzte berarekin).

[8]

Apaiza historiari ezberdinenena izan liteke marrazkia, gogartea. Beharbada horregatik ezin zuen bukaerarik eduki. (Zein eduki?) Krisi baten arbinaldia detektatu bakarrik egiten du.

Ez dago soluziorik.

(Zergatik ez dago soluziorik? Aa!, ona galdera. Baina hori, galdera planteamendu hori, ez da hemen egiten dena!).

Batera zein bestera, modu askotan irakur liteke nobela hau, dudarik gabe. Edonola ere, apaiz gaixoti baten obsesio sexualak: ez zen gainaxala besterik. Gizon/emakume problema, beti antzina-antzinakoa eta berri-berria, kultur krisi unibertsal baten atal bezala eta paradigma bezala ageri da Robert Musilen *Gizon tasunik gabekoa*-n halaber. (Maitasunaren historia bat munduaren historia bat da). Ulrich, kultura modernoa, ingeniaria eta matematikoa da. “Jakitea jarduera bat da, grina bat”, alkoholaren edo sexuaren antzeko obsesio eta mania bat (54. zenb.). Oraindik mundu oker batean bizi bagara, etorkizunean gizakiaren egungo problemak zuzenduko direla noizbait, esperantzarekin ageri da Ulrich nobelaren hasieran. Zientzian eta progresioan sinesten duenak, problema guztien soluzioan sinesten du. Hori da pertsona moderno kultu bat. Ordea sentimenduen beren matematika esakto bat postulatzetik, laster etorriko da ingeniari “zientziarekin maitemindua”, gizakumeak ahal duen maitasun gorengorena lortzeko, errealitatea desegin eta “posibilitateen ertz-ertzean” bizitzen saiatu beharra deskubritzera, saio hau Agatherekin (Diotima!), intzestu izpiritual batean, dialogoan, ideia “beste egoeran” dastatzeko. Errealitate guztiaren bestelakotasun osoan bakarrik izango da posible bestelako maitasuna. Beraz, egon badago bideren bat maitasun gorenera.

Ez maitasuna, mundua dago ukatu beharra. Munduarentzat ez da eskaintzen soluziorik.

Problemari ere utzi egin behar zaio problema izaten.

Problema orokorki planteatu bakarrik egin nahi zuen Gidek (han homosexualitateko historia pribatu bat da gaia), bukaera gabe bukatzen duen nobelan. “Que Michel triomphe ou succombe, le «problème» continue d’être, et l’auteur ne propose comme acquis ni le triomphe, ni la défaite”. Musilek, ezin izan zuelako bukatu seguru asko, bukatu gabe utzi du hark ere Kakaniako gizonaren historia. Baina Mendigurenen ez bukatzeak, problemaren barruan geratzeak, bera geratzen den moduan geratuta (“kontzientzia” —demokrazia?— baten fiasko egiaztatua), garrasi baudelaireano urragarri baten oihartzuna ematen du. “Honela ez goaz inora!” Nobela honek amorruez begiratzen dio munduari. Nazkatuta gaude euskal historia honekin. Zirt ala zart. Ez etorkizunera irekia, baizik labana hartu eta etorkizunen bat behingoz bortxatzeko esigentziak bukatzen da nobela:

“Ô Mort, vieux capitaine, il est temps! levons l’ancre!
Ce pays nous ennui!...”